



**ELGOIBARKO UDALEKO BEHIN  
BEHINEKO IDAZKARIA DEN  
IÑAKI GALDOS LANDA JAUNAK.---**

**DON IÑAKI GALDOS LANDA,  
SECRETARIO ACCTAL. DEL  
AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR.----**

**ZIURTATZEN DUT:**

Osoko Udal Batzarrak bi mila eta hamahiruko urtarrilaren hogeita lauan egindako bilkuran, akordio hau onartu zuela:

**EBPNRI (EUSKARA  
BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA)  
DAGOKION 2007-2012 PLAN  
ESTRATEGIKOAREN**

**INDARRALDIA LUZATZEA.-** Onartu eta erabaki bihurtu da Euskara eta Kultura Batzordeak eman duen honako irizpen hau:

“1.- Elgoibarko Udalak orain arte indarrean izan du Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari (EBPN) dagokion 2007-2012 aldiko Plan Estrategikoa, arestian aipatutako aldi horretan, euskararen normalizazioaren alorrean landu beharreko helburu estrategikoak, neurriak eta ekintzak jasotzen dituen.

2.- Era berean, kontuan izan behar da Plan Estrategiko horren indarraldia bukatzeaz dagoela, eta Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aginduz, EBPNri dagokion Plan Estrategiko berria onartu behar duela, edo bestela, Udalak 2007-2012 aldirako onartu zuen Plan Estrategikoaren indarraldia urtebeterako luzatu.

3.- Ildo horretatik, kontuan izan behar da, Udalak Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzarekin kontsultatu duela eta 2013an EBPN luzatzeko aukera dagoela; izan ere, Eusko Jaurlaritzak onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana Eusko

**C E R T I F I C O:**

Que el Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el día veinticuatro de enero de dos mil trece, adoptó el siguiente acuerdo:

**PRÓRROGA DE LA VIGENCIA DEL  
PLAN ESTRATÉGICO 2007-2012  
CORRESPONDIENTE AL PGPUE  
(PLAN GENERAL DE PROMOCIÓN  
DEL USO DEL EUSKERA).-** Es aprobado elevándolo a la categoría de acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Gestión de Euskera y Cultura:

“1.- El Ayuntamiento de Elgoibar hasta la fecha ha tenido vigente el plan estratégico 2007-2012 correspondiente al Plan General de Promoción del Uso del Euskera (PGPUE), donde se contemplan los objetivos estratégicos, las medidas y las acciones que se han llevado a cabo, en el período anteriormente citado, en el ámbito de la normalización del euskera.

2.- Asimismo, debe considerarse que está a punto de concluir la vigencia de dicho Plan Estratégico. Por ello, siguiendo el mandato de la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco, el Ayuntamiento de Elgoibar debe proceder a la aprobación de un nuevo Plan Estratégico; o en su defecto, debe prorrogar por el plazo de un año la vigencia de Plan Estratégico aprobado para el período 2007-2012.

3.- En ese sentido, debe considerarse que el Ayuntamiento ha consultado con la Dirección de Normalización Lingüística la posibilidad de prorrogar el PGPUE durante el año 2013; puesto que el nuevo Plan de Acción para la Promoción del Euskera



Legebiltzarrera igorri baita tramiterako. Hori horrela, Legebiltzar berria arduratuko da ESEP tramitatzeaz eta Gobernu berriari dagokio hau guztia kudeatzea. Ekintza plan horrek aldatu-gaurkotu egingo du EBPn eta, honenbestez, 2014rako indarrean egongo litzateke. Horregatik, Zuzendaritza horrek plan estrategikoa 2013rako luzatzeko aukera eman dio Elgoibarko Udalari.

ESEP ha sido remitido al Parlamento Vasco y será el nuevo Parlamento el encargado de tramitar dicho plan. Como consecuencia, se modificará y actualizará el PGPUE. Se prevé que dicho Plan de Acción entre en vigor el año 2014. Por todo ello, dicha Dirección concede al Ayuntamiento de Elgoibar la posibilidad de prorrogar el plan estratégico durante el año 2013.

Horregatik guztiagatik, Elgoibarko Udalaren Euskara eta Kultura Batzordeak, 2012ko abenduaren 20an egindako bileran, ondorengo **AKORDIOA** har dezala proposatzen dio Udalbatzarraren Osoko Bilkurari:

Por todo ello, la Comisión de Euskera y Cultura del Ayuntamiento de Elgoibar, en sesión celebrada con fecha de 20 de diciembre de 2012, propone al Pleno de la Corporación Municipal que adopte el siguiente **ACUERDO**:

**LEHENENGOA.-** 2007-2012 epealdirako onartu zen EBPnren Plan Estrategikoaren indarraldia urtebeterako luzatzeko akordioa onar dezala, 2013ko abenduaren 31ra arte.

**PRIMERO.-** La aprobación del acuerdo de prórroga de la vigencia por plazo de un año del Plan Estratégico aprobado para el período 2007-2012, hasta el 31 de diciembre de 2013.

**BIGARRENA.-** Honako akordio hau Eusko Jarularitzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari jakinaraztea legez ezarrita dagoen eran."

**SEGUNDO.-** Notificar el presente acuerdo en la forma legalmente establecida a la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco."

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau luzatzen dut Alkate jaunaren O.I.rekin, Elgoibarren bi mila eta hamahiruko otsailaren hogeita bostean.-----

Y para que así conste, expido la presente certificación con el Vº.Bº. del Sr. Alcalde, en Elgoibar a veinticinco de febrero de dos mil trece.-----

